



Getxo
**PUNTA
BEGOÑA**
Fundazioa

FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA FUNDAZIOA

**JARDUKETA-PLANA
(AURREKONTUAK)
2025. URTEA**

AURKIBIDEA

ZIURTAGIRIA	 3
FUNDAZIOAREN DATUAK	 4
AURREKARIAK	4
FUNDAZIOAREN ERAKETA ETA EZAUGARRIAK	7
XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK	8
HELBURUAK	9
KUDEAKETA-ORGANOAK	10
ILDO NAGUSIAK	 11
GASTUAK	12
DIRU-SARRERAK	12
INBERTSIOAK	13
PERTSONA, ERAKUNDE EDO KOLEKTIBO ONURADUNAK	 14
2025RAKO AURREIKUSITAKO JARDUERA-PLANA.....	 15
JARDUERA-PLANA	15
JARDUERA BAKOITZAREN GARAPENA	15
BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA	19
2025KO AURREKONTUAREN MEMORIA	 21
GASTUAK	21
DIRU-SARRERAK	25
2025RAKO AURREIKUSITAKO EMAITZEN KONTUA	 27
2025RAKO AURREIKUSITAKO EGOERAREN BALANTZEA	 28



FUNDAZIOAREN DATUAK

SOZIJETATE-IZENA:	FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA PUNTA BEGOÑA FUNDAZIOA
I.F.K.	G 018 297 38
HELBIDEA:	Foruak kalea, 1 – 48992 GETXO (BIZKAIA)
ERREGISTRO-DATUAK:	Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2020ko abenduaren 29ko Aginduaren bidez inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, F-463 zenbakiarekin.
JARDUERA:	Higiezinaren eraikuntza osoa, konponketa eta kontserbazioa (EJZren epigrafea: 150110)

AURREKARIAK

Punta Begoña Fundazioa sortu da *Getxoko Punta Begoña Galeriak berreskuratzeko eta haien balioa nabarmentzeko proiektua* abian egon den urteetan lortutako jakindurian eta ezagutzan oinarrituta. Bizkaiko udalerrri honetako kostaldean balio ukaezina duen ondare-ondasuna da, eta euskal kostaldeko XX. mende hasierako eraikin berezietakoa.

Hamarkadetan zehar, monumentuari funtzio berri bat emateko ahaleginek ez zuten emaitza onik lortu, eta horrela, mantentze- eta erabilera-faltak eraikuntza hondatu zuten, gordetzen dituen kultura-balioak arriskuan jarri.

Hala ere, eraikinari erabilgarritasuna itzultzeko proposamen horien ondorioz, perspektiba aldatu zen, eztabaidagarriak izan litezkeen irizpideen arabera

eraldaketak sustatzeko arriskuari aurre egiteko ziurrenik. Horregatik, proiektu bat jarri zen abian, non eraikinaren berreskuratze formala ez zen helburu bakarra, baizik eta honako hauek lortzeko baliatu beharreko prozesu bat:

- Monumentua balorizatzea,
- Gizartea bere ondareari buruz sentsibilizatzea,
- Udal-prestigioaren irudia indartzea, ondarea berreskuratze jardunbide egokiaren aldeko konpromisotik sortutako proiektu baten bidez,
- Espazio abandonatu bat kultur leku erreferentziala, bizia eta partekatua bihurtzea,
- Eta, horren ondorioz, jarduera sozioekonomikoa sortzea, iraunkortasun-irizpideetatik abiatuta, toki- eta lurralde-garapena sustatzeko.

Horrekin guztiarekin, 2014ko martxoan, **Esparru-Hitzarmena sinatu zuten Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Getxoko Udalak**, azken erakunde horren jabetzako Begoña lurmuturreko galeriak izeneko higiezinari balioa emateko ildo nagusiak ezartzeko.

2014ko urriaren 13an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Getxoko Udalak lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten, 2014-2015 aldian egin beharreko jarduerak, bitarteko pertsonalak eta materialak eta alderdien konpromiso ekonomikoak zehazteko. Hitzarmen hori beste bi aldiz berritu zen lanek aurrera egin ahala. Lankidetzahitzarmen horietako azkenekoan eratu zen Punta Begoña Fundazioa, jarduera horiek eta estatutuetan jasotako beste batzuk garatzeko eta kudeatzeko tresna gisa.

Denbora horretan, *Punta Begoña Galeriak zaharberritzeko eta balioztatze proiektua* Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan **Euskadirentzat enblematikoak diren 50 proiektu eta ekimenetako** bat dela aitortu da, "Gaitasun berriak sortzeagatik etorkizun handiena duten zientzia- eta teknologia-arloetan, ekoizpen-eragileekin sinergia argiak daudenean eta itzulkin ekonomiko eta sozial handiagoak lor daitezkeenean".

2018an, *Espainiako Arkitektura eta Hirigintza Bienalak* Punta Begoñako Zaharberritze Irekia hautatu zuen **Estatuko proiektu arkitektoniko nagusien** artean finalista gisa, "Arkitekturari aplikatutako ikerketagatik eta gizarteari zabaltzeko, erregistratzeko eta transferitzeko ereduagatik, zaharberritze irekiaren prozesu globala osatzen duten euskarri digitalen bidez".

2019an, gizarteari ezagutza transferitzeko unibertsitate-eredu gisa hautatu zuten proiektua Salamancako Unibertsitateko *Zientzia eta Teknologia Ikasketen Unibertsitate Institutuak*, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko *CIT Ikasketen Institutuak* eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoko *Ingenio Institutuak*.

2021ean, Punta Begoña Fundazioa abian zela, eta monumentua berreskuratzeko eta balioztatzeko proiektua kudeatzeko ardura zuela, **2021-2022, 2022-2023 eta**

Punta Begoña Galeriak proiektua finalista izan zen Arkitektura eta Hirigintzako XIV. Bienalean, hiriko eta paisaiako kultura arkitektonikoaren aurrerapenari eta ezagutzari egindako ekarpenagatik, prozesua sormenezko eta kalitatezko euskarri baten bidez zabalduz, ibilbide horretan gizarte-balioei lehentasuna emanez.

2023-2024 Hiria birgaitzeko eta berroneratzeko RERU Masterrean sartu zen, ikerketa eta jardunbide egokien kasu gisa, Bilbao Ría 2000 hiri-

kudeaketako proiektuarekin batera, "Obretan eta Irekita" ondare-kudeaketako ereduaren aplikazio paradigmatico eta integralagatik, hiri jasangarria eratzeko motor gisa. Hori guztia Consell eta Valentziako Etxebizitza eta Arkitektura Bioklimatikoko Kontseilaritzaren 2. lehendakariordetzaren Hiria birgaitzeko eta berroneratzeko Estrategiaren esparruan.

Bestalde, 2022an, Fundazioak bere jardueraren garapenean hartutako konpromisoak indartu ziren, eta, horren ondorioz, Punta Begoña Galeriak berreskuratzeko eta balioesteko proiektua **Euskadiko Turismoaren Kode Etikoan sartu zen**, Eusko Jaurlaritzaren balorazioa jarraia jaso ondoren, eta **Foru Aldundiak Bizkaiko baliabide estrategikotzat onartu zuen**.

Ondorioz, 2023an, Punta Begoña Fundazioak egiaztapen-prozesu baten mende jarri zuen bere jarduera, eta prozesu horren emaitza **SGS International Certification Services munduko enpresa liderraren ziurtagiria izan zen, Garapen Iraunkorreko Helburuak benetan lortzen egindako lanagatik**. Punta Begoña, bere Fundazioaren bitartez, horrelako ziurtagiri bat lortu duen kultura-ondarearen lehen proiektuetako bat izan da, bere kudeaketa integrala benetako garapen-motorra izan daitekeela erakutsiz.

Euskadiko Irrati eta Telebistako Profesionalen Elkarteak "2023ko albiste ontzat" jo zuen albiste hori, gizarteari ematen dion balioagatik, herritarrek monumentuan egiten diren jarduera soziokulturaleran, prestakuntza-programetan edo bisita gidatuetan izan duten parte-hartze handiagatik.

2024a orain arte egindako urratsak sendotzen zentratutako urtea izan da; bide horrek monumentua sozializatzeko eta erabilera soziokulturalerako urteko programa egonkortzea ekarri du eta, horren ondorioz, Getxoko biztanleek **Punta Begoña proiektua udalerriko ezagunena dela** aitortu dute (Ikerfel enpresak 2023an egindako kanpo-inkestaren arabera).

Proiektuaren aurrerapenarekin batera, aplikatutako eredu berritzailearen aintzatespen horiek lortzearekin eta haren irekitasuna eta irisgarritasun publikoa sustatuko zituen jarduera soziokulturala sortzearekin batera, hainbat erakunde publikoren konfiantza lortu zen, eta erakunde horien ekarpenak Getxoko Udalak egindako inbertsioaren kostua minimizatzea ahalbidetu zuen. Horrela, bai **Bizkaiko Foru Aldundiak** (dirulaguntza irekien edo izendunen bidez), bai **Eusko Jaurlaritzako** Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (euskal kultura-ondarea balioesteko eta hedatzeko dirulaguntzen linearen bidez), bai Espainiako Gobernuako **Sustapen Ministerioak** -egungo Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak- (1,5% Kultura Programaren bidez) parte hartzen dute Punta Begoñako Galeriak berreskuratu eta balioesteko **egiten diren jardueren finantzaketan**.

FUNDAZIOAREN ERAKETA ETA EZAUGARRIAK

2020ko martxoaren 12an, Getxoko Udalak egungo erakunde juridikoa eratu zuen, **Fundación Punta Begoña** izenekoa, euskaraz **Punta Begoña Fundazioa** izena duena.

Fundazio horrek nortasun juridiko propioa, independentzia eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa ditu, fundatzaileen borondate-adierazpenean, fundazioaren estatutuetan eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean ezarritakoez gain, beste mugarik gabe.

Fundazioaren zuzkidura 30.000 €-koa izan zen, eta haren ekarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 12. artikuluaaren bigarren paragrafoaren arabera egin zen, honela:

- Getxoko Udalaren 12.337,85 €-ko diru-sarreraren bidez.
- Gainerako zenbatekoa gehienez ere bost urteko epean ordainduko da, eratze-datatik zenbatzen hasita.

Eratzeko, erakundeak giza baliabideez zein baliabide tekniko eta finantzarioez hornitu zuen, eta hainbat udal-higiezin erabiltzeko eskubidea laga zion, hau da, Punta Begoña Galeriak eta La Galeako Faro Zaharra eta Gotorlekua, biak mugagabeak.

Fundazioak Getxon garatzen du nagusiki bere jarduera, baina Euskal Autonomia Erkidegoan zabal daitekeela aurreikusten du.

Fundazioa Getxoko Udaletik eta beste erakunde batzuetatik jasotzen dituen dirulaguntzen bidez finantzatzen da. Eta proiektu zehatzetarako laguntzen eta dirulaguntzen programen bidez. Horri, bisitarien sarreraren salmentatik,

erakusketetatik eta bertan ospatzen diren ekitaldietatik ateratzen den dirua gehitu behar zaio. Diru-sarrera hauei, eskuratutako ezagutza teknikoa transferitzeko zerbitzuak ematek fundaziotik kanpoko operadoreek beste toki batzuetan garatzen dituzten antzeko proiektuetatik eratorritakoak gehitzen zaizkio.

Gainera, etorkizunerako aurreikuspen gisa, finantzaketa hori handitu egingo da honako hauen bidez:

- enpresa lagun eta laguntzaileek eta/edo partikularrek egindako ekarpenak,
- publizitate-gai erakargarriak merkaturatzea,
- beste erakunde edo pertsona fisiko edo juridiko batzuetatik jasotako kudeaketa- eta garapen-mandatuak zerbitzuak ematea.

XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK.

XEDEA

Garapen iraunkorrari, kualitatiboari, ekonomikoari eta sozialari laguntzea, herritar guztien onurarako, ondare-ondasunen defentsa eta kontserbazioa komunitatearen plangintza- eta kudeaketa-prozesuetan integratuz, eta horiek atzeraka doazen eremuak indartzeko, lurraldeen arteko sinergia produktiboak sortzeko eta gizarte-kohesioa eta -berrikuntza sustatzeko gai den baliabidez hartuz.

IKUSPEGIA

Erreferentziazko erakunde bihurtzea ondarearen kudeaketa integrarean, non esku-hartzea ez baita jada helburua, bitarteko etapa baizik askoz ere prozesu zabalago batean, non **kultura-ondasunak bere biografiaren mugarri garrantzitsu gisa eta garapen ekonomiko eta sozialerako baliabide gisa aitortzen dituen herriaren memoriaren gordailu baitira.**

BALIOAK

- **Kalitatearen eta bikaintasunaren aldeko konpromisoa** abian jarritako jarduera bakoitzean.
- Onuradunei fundazioaren helburuen arabera **zerbitzua emateko espiritua**, interes horiek lehenetsiz norberaren edo partikularren interesen aurretik.

- **Ezagutza transferitzea** lurraldeak bultzatzeko eta garatzeko, egindako inbertsio publikoaren itzulkin sozial eta ekonomikoa sortuz.
- **Jokabide-kodeetan eta jardunbide egokietan** oinarritutako jarduera sustatzea.
- **Publizitatea eta gardentasuna** helburuetan eta jardueretan.
- **Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza** onuradunak zehaztean eta jarduerak eta prestazioak garatzean.
- **Genero-berdintasuna** sustatzea.
- Fundazioaren ondarea eta errentak fundazioaren helburuetara bideratzeko betebeharra benetan bete dadin defendatzea eta babestea, fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.
- **Lankidetz**a leial eta iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzarekin.

HELBURUAK

Horrela, eta estatutuetako hirugarren artikuluan jasotakoaren arabera, Punta Begoña Fundazioak bere helburutzat hartzen ditu honako hauek:

- 1| **Getxoko udalerrriaren ondare eta aberastasun historiko-artistikoa aztertzea eta ikertzea**, Punta Begoña osoari arreta berezia eskainiz.
- 2| **Getxoko udalerrriaren ondare historiko-artistikoa** osatzen duten ondasun bereziak **zaintzeko, kontserbatzeko, mantentzeko, birgaitzeko eta zaharberritzeko eta balioa nabarmentzeko** jarduketa zehatzak egin behar dira, batez ere multzo osokoak, Punta Begoña osoari arreta berezia jarrita.
- 3| **Punta Begoñaren multzoa duen potentziala identifikatzeko jarduera jasangarrien** garapena sustatzea.
- 4| **Herritarren harrotasuna kontzientziatzen eta sustatzen** laguntzea, Punta Begoñaren balio historiko-artistikoari eta **Getxoko udalerrriaren kultura-ondareari** dagokienez, oro har.
- 5| **Ondarea kudeatzeko eredu bat egituratzea, udalerrriaren aintzatespen-eta nortasun-elementu bihurtuko dena, eta haren aplikazioa kanpoko**

proiektuetara transferitzea ahalbidetuko duena, egindako inbertsio publikoaren itzulkin sozial eta ekonomikoa sortuz.

KUDEAKETA-ORGANO

Patronatua fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organo gorena da, eta fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahalmen guztiak ditu. Egun, honako hauek osatzen dute Patronatua:

Lehendakaria: Amaia Agirre Muñoa andrea, Getxoko Udaleko alkatea.

Patronatukideak: Ignacio Uriarte Gorostiaga jauna, EAJ-PNV udal talde politikoaren izenean.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda jauna, PARTIDO POPULAR udal talde politikokoa.

Mikel Bildosola Agirregomezkorta jauna, EH BILDU udal talde politikokoa.

Juanma González Mosquera jauna, TALDE SOZIALISTA udal talde politikoaren izenean.

Xabier Benito Ziluaga jauna, ELKARREKIN udal talde politikokoa.

Bestalde, Punta Begoña Fundazioaren diruzaintzaren ardura Cristina Bilbao Salterain andrearena da, Getxoko Udaleko diruzainarena. Idazkaria Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jauna da, Getxoko Udaleko idazkaria.

Fundazioaren ohiko kudeaketa María Peraita Tajadura zuzendari andreari dagokio.

ILDO NAGUSIAK

Jarduera-plan hau 2021tik lortutako esperientzia oinarri hartuta egin da. Batez ere Punta Begoña Fundazioaren jardueren potentzialtasunari dagokionez

Aldi horretan erdietsitako mugarriak ikusita, Punta Begoña Fundazioak garapen sozial eta ekonomiko iraunkorra sortzeko duen gaitasunaren ebidentziatzat hartuta, baina, batez ere, bere jardueraren bidez itzulera horiek areagotzeko irekitzen diren aukerak ikusita, Jarduera-plan bat planteatzen da, honako premisa hauetatik abiatuta:

- Punta Begoña Fundazioa pixkanaka sendotzea, ondare historiko kulturalaren arloko erreferentziazko erakunde sendo gisa, bere estatutu-helburuak lortzera bideratutako jarduera gero eta ugariagoen bidez;
- Bere jardueraren garapenean aurrera egitea, Punta Begoña Fundazioak 2030 Hiri Agendan (zehazki, ODS4) ezarritako Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzen egindako ekarpenari buruzko kanpo-ziurtagiria lortzeko esparruan identifikatutako adierazleen arabera. Zehazki ODS4, Kalitatezko hezkuntza, ODS5. Genero-berdintasuna, ODS7. Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea, ODS9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura, ODS11. Hiri eta komunitate iraunkorrak, ODS16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak;
- Punta Begoñako Galerien monumentua berreskuratzeko eta balioa emateko proiektuarekin jarraitzea, plangintzaren arabera ondorengo esku-hartzeko faseak garatuz ondare-lekuaren irekiera soziala areagotuz, horrela sorkuntza-, berrikuntza-, erakusketa- eta prestakuntza-eremu kolektibo bat gauzatu ahal izateko.
- Punta Begoña Fundazioaren jarduerak garatzeko behar den udal-inbertsioa minimizatzea, beste erakunde publiko edo pribatu batzuk proiektuan inplikaturik, bai eta sinatu ahal diren balizko hitzaremnak, laguntzak, dirulaguntzak eta ekarpenak egoki gauzatzuz.

Horren arabera, 2025a finkatzeko urtea izango da, eta Punta Begoña Fundazioak jarduera indartu behar du, batez ere Punta Begoña Galeriak monumentuaren sozializazioari eta ondare-ondasunen erabilera uzteari zuzendutako plangintza estrategikoari dagokienez. Helburu hori ezinezkoa izango da fundazioari finantzatzeko behar duen ahalmen ekonomikoa eman ezik.

Aurrekontua finantza-orekaren printzipioei jarraituz egin da, eta, finantza- eta ekonomia-arloei dagokienez, adierazten du urtean zehar egitea aurreikusitako ekintzen multzoa.

Aurreikusitako baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak jasotzen ditu, bai eta burutuko den jarduera-programa garatzeko erabili beharrekoak ere, bai eta lortu nahi den bisitari edo erabiltzaile kopurua eta sortu nahi den jarduera ere.

GASTUAK

Gastuak kuantifikatzeko, honako hauek hartu dira kontuan: fundazioko langileengandik datozenak; fundazioaren finantza- eta administrazio-kudeaketa egokirako beharrezkoak direnak; fundazioak lagatako erabilera duen ondarea mantentzeko eta kontserbatzeko gastuak, bai eta irekitzeko eta erabilera publikorako beharrezkoak direnak ere; aipatutako ondarearen funtzionamendu egokirako eta zerbitzurako oinarritzko hornidura-gastuak; jarduera-arloetako giza baliabideen beharrianak estaltzeko enpresa pribatuekin egindako kontratuetatik eratorritakoak; eta ondare historikoa ezagutzera emateko eta balioan jartzeko martxan jarritako proiektuak garatzeko ere.

Era berean, fundazioaren estatutuetako helburuei erantzuteko planifikatutako jardueren kostuen zenbatespena egin da, zehazki, Getxoko kultura-ondarearen zabalkundea eta gizarteratzea eta Punta Begoña galeriak berreskuratzea. Horrela hartu da kontuan: Punta Begoña Galerietara bisita gidatuak egiteko programa, Getxoko ondarearen balioak sustatzeko kultur jarduerak (hitzaldiak, erakusketak, jardunaldi zientifikoak, teknikoak eta/edo artistikoak, etab.) Punta Begoña Galeriak eraiki eta erabili izanaren mendeurrena dela eta, eta aipatu ondarearen balioak eta Punta Begoña Fundazioak egindako jarduera hobeto ezagutzeko zabalkunde-ekintza zehatzak.

DIRU-SARRERAK

Diru-sarreraren aurreikuspena egiteko, finantziazioa hainbat bidetatik erakartzea hartu da kontuan: erakunde sortzailetik kanpoko dirulaguntzetatik (hainbat laguntza-programatarako proiektuak eta hautagaitzak eginez edo lor daitezkeen dirulaguntza izendunen bidez), eragile publiko eta/edo pribatuekiko laguntzeko edo zerbitzuak emateko hitzarmenetatik, eta monumentuen erabilerarako eta sozializatorako ekintzetan bildutako sarreretatik.

Bestalde, esan gabe doa diru-sarreraren aurreikuspen horretan erabakigarria dela erakunde sortzaileak emandako laguntza eta Punta Begoña Fundazioaren jarduera diruz laguntzeko konpromisoa, abian jartzeko behar den guztian.

Azkenik, eta urtean zehar, jardueren ondoriozko diru-sarrerak handitzea eta finantzaketa-iturri publiko eta pribatu berriak erakartzea helburu duten neurriak hartuko dira.

INBERTSIOAK

Aurrekontuak jasotzen dituen inbertsioak bideragarritasun ekonomikoaren arabera zehaztu dira, eta, horretarako, kontuan hartu da Getxoko Udaletik kanpoko erakundeek edo entitateek eman ditzaketen dirulaguntzen aurreikuspena, erakunde horrek emandakoaz gain, nagusiki Eusko Jaurlaritzatik etorritakoak.

PERTSONA, ERAKUNDE EDO KOLEKTIBO ONURADUNAK

UNESCOK¹ aitortzen duenez, ondareak izaera kolektiboa du berez, gizarte garaikideen kapital kulturala baita. Nazioartean erreferentzia den erakunde horrek jasotzen duenez, kultura-ondareak kulturen eta nortasunen etengabeko balioa handitzen laguntzen du, eta, horrez gain, belaunaldien artean esperientziak, gaitasunak eta ezagutzak transmititzeko bide garrantzitsua da. Gainera, sormenerako eta berrikuntzarako inspirazio-iturri da, eta, aldi berean, kultura-aniztasuna eskuratzea eta gozatzea sustatzen du. Horri kapital soziala aberasteko duen potentziala gehitzen zaio, norbanakoaren eta taldearen parte izatearen zentzua eratuz, zeinak gizarte- eta lurralde-kohesioari eusten laguntzen dion. Horri gehitu behar zaio duen garrantzi ekonomikoa, bereziki sektore turistikoarentzat, hura kontserbatzeko erronka berriak sortzekotan.

Punta Begoña Fundazioak kultura-ondarea garatzea du helburu Getxokoa eta, oro har, EAEkoa, eta, horregatik, bere xedea lortzekotan garatzen dituen jarduerak **Getxoko udalerriko eta EAEko herritar guztien onerako izango dira**, bai eta ondare historiko-artistikoa kontserbatzea eta ondare horren kudeaketa bere funtzio sozialaren irizpidearen arabera garatzea lehentasunezko zat jotzen duten pertsona guztien onerako ere.

¹ UNESCO. Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea.

2025RAKO AURREIKUSITAKO JARDUERA-PLANA

Dokumentu honetan, Punta Begoña Fundazioak 2025an egitea aurreikusten diren jarduera nagusien laburpena jasotzen da:

- 1| GETXOKO ONDAREAREN AZTERKETAK
- 2| GETXOKO ONDAREA KONTSERBATZEA
- 3| KULTUR EKINTZA
- 4| PROIEKTUAK GARATZEKO BULEGOA
- 5| ZERBITZU KOMUNAK

JARDUERA BAKOITZAREN GARAPENA

1| GETXOKO ONDAREAREN AZTERKETAK

Besteak beste, barne hartzen ditu Getxoko kultura-ondarearen balioak sakon ezagutzeko azterlanak (EAEko gainerako lurraldeetara hedatuta), baita balio kolektibo handiko baliabide gisa aintzatesteko herritarrak sozializatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak ere.

Jarduerak:

- a. **Hitzaldiak, ikastaroak, jardunaldiak edo beste edozein prestakuntza-jarduera** antolatzea, Getxoko ondare historiko-artistikoa ezagutu eta zabaltzeko, arreta berezia jarritz Punta Begoñari.

[3 eta 4 xedeak]

- b. EAEko kultura-ondarearekin lotutako **ikerketak eta prestakuntza-jarduerak** egitea.

[1, 3 eta 4 xedeak]

2| GETXOKO ONDAREA KONTSERBATZEA

Getxoko ondarea zaharberritzera, sendotzera eta birgaitzera bideratutako azterlanak hartzen ditu kontuan, baita jarraitutako prozesua sozializatzeko ekintzak ere, ondarea eskuhartzeko eta berreskuratzeko eredu gisa izaera irekia, integrala eta eredugarria har dezan.

Jarduerak:

- a. **Jarduketa- eta kudeaketa-gidalerroak onartzea eta garatzea**, bai Punta Begoña osorako, bai Getxoko udalerriko beste **ondare-elementu batzuetarako**, esku hartzeko tresna zehatzen bidez (plan zuzentzaileak edo maisu-planak), ikerketa-, esku-hartze- eta kudeaketa-ildo nagusiak ezartzeko.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- b. Ondare historiko-artistikoa birgaitzeko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko tekniken **azterketa- eta ikerketa-politikak garatzea**, Fundazioaren baitan ezagutza-altxor bat metatzeko, Fundaziotik kanpoko operadoreek beste leku batzuetan garatzen dituzten antzeko proiektuetara estrapolatu ahal izateko.

[1, 2 eta 5 xedeak]

- c. **Getxoko udalerriko ondare eta aberastasun historiko-artistikoaren aldeko jarduerak sustatzeko balio duten jarduerak** bultzatzea, arreta berezia jarriz Punta Begoña osoari.

[1, 2 eta 3 xedeak]

3| KULTUR EKINTZA

Bere ondare-balioen arabera, lekuaren dinamizazio soziokulturalera bideratutako proiektuaren esparruan garatutako jarduera oro hartzen du.

Jarduerak:

- a. Bultzatzea Punta Begoñako **ondare historiko artistikoaren erakusketa eta zabalkundea** sustatzeko **jarduerak**, gizartean, oro har, eta Getxoko eta eskualdeko herritarren artean, bereziki, baita haren gozamenerako sarbide unibertsala ere.

[3 eta 4 xedeak]

4| PROIEKTUAK GARATZEKO BULEGOA

Kontuan hartzen ditu proiektuen kontzeptualizazioa eta diseinua, eskuratutako ezagutza transferitzera, kultura-ondarearen eremuan esku hartzeko eta kudeatzeko eredia aplikatzera eta Fundazioaren funtzionamendurako funtsak erakartzera bideratutako proiektuak.

Jarduerak:

- a. EAeko kultura-ondarearen eremuan beste erakunde edo pertsona fisiko edo juridiko batzuetatik jasotako **kudeaketa- eta garapen-jarduerak, -enkarguak edo -gomendioak.**

[4 eta 5 xedeak]

- b. **Patronatuak onartzen dituen programak zuzenean edo zeharka kudeatzea**, EAeko kultura-ondarearen eremuan.

[4 eta 5 xedeak]

5| ZERBITZU KOMUNAK

Fundazioak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren gainerako jarduerak hartzen ditu kontuan, besteak beste, Fundazioaren jardura administratu, komunikatu eta zabaltzeko lanak.

Jarduerak:

- a. Punta Begoñako **kudeaketa-sistema orokorra finkatzea**, fundazioak kostu-, likidezia-, egonkortasun- eta segurtasun-baldintza onenetan jardun dezan.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- b. Kontabilitate-, zerga-, lan- eta lege-arloetako prozedura operatiboak eta administratiboak etengabe berrikustea eta gainbegiratzea, eta **kudeaketa eraginkorragoa lortzeko prozedura berriak abian jartzea.**

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- c. 2023an eta hurrengo urteetan programa operatibo guztiak garatzeko **funtsak eta baliabideak biltzea eta kudeatzea.**

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- d. **Komunikazio-jarduerak zabaltzea**, Punta Begoña Fundazioaren ikusgarritasuna eta aitortpen soziala hobetzeko, bai tokikoa, bai nazioartekoa.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- e. **Fundazioaren jardueren etengabeko jarraipena egitea** patronatukideekin, eta urteko helburuak lortu diren baloratzea.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- f. Fundazioaren martxa eta errendimendu hobean eragiten duten eta gizarte osoan inpaktua areagotzen duten **beste jarduera batzuk**, pertsoneri edo taldeari dagokienez.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA

ERAKUNDEAK LORTU BEHARREKO DIRU-SARREREN AURREIKUSPENA

2025ko Jarduketa Plana garatzeko aurreikusitako diru-sarrerak taula honetan laburbiltzen dira:

DIRU-SARRERAK

	1. jarduera	2. jarduera	3. jarduera	4. jarduera	5. jarduera	GUZTIZKOA
--	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-----------

1 PATRONATUKIDEEN EKARPENA FUNDAZIOARI						530.226,04
1.1 Getxoko Udala	138.922,96	254.541,24	58.010,87	8.551,10	70.199,87	530.226,04
2 DIRULAGUNTZAK						379.908,46
2.1 Eusko Jaurjaritza	48.415,12	316.493,34	-	-	-	364.908,46.
2.2 Bizkaiko Foru Aldundia eta veste erakunde publikoak eta/edo pribatuak	1.393,92	-	5.741,08	-	7.865,00	15.000,00
3 LANKIDETZA-HITZARMENAK ETA BABESLETZAK						50.000,00
3.1 Erakunde pribatuak	23.380,00	-	-	-	26.620,00	50.000,00
4 LANKIDETZA-HITZARMENAK ETA BABESAK						14.520,00
4.1 Erakunde publiko edo pribatuak	-	-	-	14.520,00	-	14.520,00
5 BESTELAKO JARDUERA EKONOMIKOAK						9.822,00
5.1 Sarrerak eta/edo beste jarduera ekonomiko batzuk kobratzea	9.822,00	-	-	-	-	9.822,00
LORTU BEHARREKO BALIABIDE GUZTIEN AURREIKUSPENA	221.934,00	571.034,58	63.751,95	23.071,10	104.684,87	984.476,50

1. jarduera: GETXOKO ONDAREAREN AZTERKETAK

2. jarduera: GETXOKO ONDAREA KONTSERBATZEA

3. jarduera: KULTUR EKINTZA

4. jarduera: PROIEKTUAK GARATZEKO BULEGOA

5. jarduera: ZERBITZU KOMUNAK

*Hemen adierazitako kopuru giztiak euroak dira

ERAKUNDEAK ERABILI BEHARREKO BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA

GASTUAK

	1. jarduera	2. jarduera	3. jarduera	4. jarduera	5. jarduera	GUZTIRA
1 KAPITAL-AURREKONTUA						316.493,34
1.1 INBERTSIOAK	-	316.493,34	-	-	-	316.493,34
Lanak	-	280.163,34	-	-	-	280.163,34
Proiektuak idaztea	-	36.330,00	-	-	-	36.330,00
Ikerketa eta garapena	-	-	-	-	-	-
2 USTIAPEN-AURREKONTUA						596.188,24
2.1 ZUZKIDURAK	37.262,18	45.979,85	12.208,20	7.509,50	47.928,19	150.887,92
Langileak	37.262,18	45.979,85	12.208,20	7.509,50	47.230,19	150.887,92
Finantzariorak	-	-	-	-	698,00	698,00
Zergak	-	-	-	-	-	-
2.2 KANPO ZERBITZUAK	184.671,82	208.561,40	51.543,75	15.561,61	56.756,67	517.095,24
Konponketak eta kontserbazioa	-	116.267,76	-	-	-	116.267,76
Profesional independenteen zerbitzuak	168.488,55	67.313,93	51.119,76	15.331,44	29.966,81	332.220,48
Garraioak	90,02	228,33	12,71	6,90	25,05	363,00
Aseguru-primak	-	880,00	-	-	-	880,00
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	-	-	-	-	25.954,00	25.954,00
Hornidurak	-	4.776,00	-	-	-	4.776,00
Beste zerbitzu batzuk	16.093,25	19.095,35	411,29	223,27	810,82	36.634,00
GASTUEN AURREIKUSPENA GUZTIRA	221.934,00	571.034,58	63.751,95	23.071,10	104.684,87	984.476,50

*Hemen adierazitako kopuru giztiak euroak dira

2025KO AURREKONTUAREN MEMORIA

GASTUAK

GASTUAK. FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK

ZUZKIDURAK | 150.887,92 €

Hona hemen ekitaldirako aurrekontuan sartutako gastuak:

- **Langileak:** sozietatearen zuzendari-ahaldunarena eta lanaldi osoko administrari laguntzaile bati dagokion kostua, hau da, urtean 105.195,80 euroko soldata, Gizarte Segurantzaren 40.999,20 euroko eta 3.994,92 euroko ekarpena pentsio-sistema osagarrietarako.
- **Finantzarioak:** banku-gastu txikien kostua, guztira 698,00 eurokoa.
- **Zergak:** ez da aurreikusten kontzeptu horrengatik kosturik 2025ko ekitaldian.

KANPO ZERBITZUAK | 517.095,24 €

- **Konponketak eta kontserbazioa:** ekitaldiko gastu normalen artean sartzen dira Begoña lurmuturreko galeriak monumentuaren garbiketa orokorra eta landare-mantentzea 38.504,19 euro.

Gainera, 18.727,25 euroko higiene-, irisgarritasun-, segurtasun- eta suteen aurkako babes-instalazioen mantentze-lanak – mantentze-gastu txikiak barne - aurreikusten dira, bai eta monumentua zaharberritzean berreskuratutako zeramika- eta marmo-materialen kontserbazioa eta biltegiatzea ere, 8.235,20 euroan.

Monumentuan izandako kalteak konpontzeko gastuak ere sartzen dira, 50.801,12 eurokoak.

- **Profesional independenteen zerbitzuak:** kontzeptu horrengatik aurrekontuan 42.707,36 euro sartu dira Punta Begoña Fundazioari lotutako zerbitzu juridikoengatik, teknikoengatik, fiskalengatik, lanekoengatik, kontabilitatekoengatik eta auditoretzagatik, gehi 400,00 euro gehiago erregistro-gastuengatik.

Era berean, Getxoko ondarea berreskuratzeko prozesuekin lotutako laguntza teknikorako (arkitektonikoa, geoteknikoa, zaharberritzailea, ondarezkoa eta iraunkortasun sozioekonomikorako) gastuak hartzen ditu, 96.316,00 euro.

Punta Begoña Galeriak gizarteratzeko kudeaketa logistikotik eta zerbitzuen garapenetik eratorritako gastuak ere sartzen ditu, bisita- eta musealizazio-ekintzen bidez, aurreikusitako esku-hartzeen aprobetxamendua eta zabalkundea dela eta, eta prozesuaren gardentasunaren alde, 112.765,62 euroko zenbatekoan.

Horri gehitu behar zaio Getxoko ondarearen balioak sustatzeko eta zabaltzeko ekintzak garatzearen ondorioz sortzen den gastuen aurreikuspena, 71.571,50 euro.

Azkenik, gastu horien barruan sartzen dira Punta Begoña Fundazioaren jarduerari lotutako zaharberritze-, gizarte-, kultura- edo bestelako ekintzen argazki-jarraipenari dagozkion gastuak, 8.460,00 euro.

- **Garraioak:** mezularitzako bidalketa txikiak eta bestelako garraioak; guztira, 363,00 euro.
- **Aseguru-primak:** Punta Begoña Fundazioak kontratatutako 880,00 euroko hainbat asegururi dagokie.
- **Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak:** Punta Begoña Fundazioak ekitaldi honetarako aurreikusitako jardueraren publizitateagatik, propagandagatik eta zabalkundeagatik aurrekontuan jasotako gastuak 25.954,00 eurokoak dira.
- **Hornidurak:** kontzeptu horrekin pareka daitezkeen kostuak 4.776,00 eurokoak dira, monumentuko elektrizitate- eta ur- hornidurarako.
- **Beste zerbitzu batzuk:** Punta Begoña Fundazioaren ordezkartza garatzeko bidaia- eta dieta-gastuei dagozkien gastuak, 3.520,00 euro.

Horrez gain, bulegoko materialaren eta inprimakien 1.000,00 euroko gastuak sartzen dira, Punta Begoña Fundazioaren komunikazioetatik eratorritako gastuak, hala nola telefonoaren kontsumoa eta Internetarako sarbidea, web orriak eta espazio digitalak eguneratzea eta mantentzea, hostingak berritzea eta biltegiatze birtuala eta xede horietarako itzulpen puntualak, 29.174,00 euro.

Azkenik, hainbat gasturi dagozkien 2.940,00 euro.

GASTUAK. FUNTSEN ERAGIKETAK

INBERTSIOAK | 316.493,34 €

2025ko ekitaldian diruzaintzaren kontura inbertsioak egitea aurreikusi da.

Kontzeptu horretan bi gastu mota sartzen dira:

- batetik, Punta Begoña galerien egitura berreskuratzeko eta indartzeko obretatik eratorritakoak, 280.163,34 euro,
- Getxoko ondarea berreskuratzeko, kontserbatzeko eta balioesteko proiektuak idazteari dagozkionak, 36.330,00 euro,

Hemen aipatzen diren obren helburu nagusia:

- hego-mendebaldeko galeriaren lehen zatiaren azpian dagoen espazio geologiko-arkitektonikoa musealizatzea, monumentua bisitatzeko baliabide historiko berezia eta inpaktu handikoa sortuko duena,
- hego-mendebaldeko galeriaren lehen zatiko (jatorrizko pabiloia) estaldurak (sabaia, paramentuak eta zoladura) iragazgaitu eta saneatzea eta lehengoratztea, zaharberritzea amaitzeko.

Hemen islatutako zenbatekoetan, Eusko Jaurlaritzak horretarako argitaratzen dituen dirulaguntza ildoetan eskatutako edo eskatuko den zenbatekoa jasotzen da, eta kopuru osoaren zati proportzionala da, % 75 edo % 60koa, kasu bakoitzerako.

Bi partida horietan sartzen dira obraren exekuzio-zuzendaritzaren eta horri lotutako segurtasun- eta osasun-koordinazioaren gastuak, zati proportzionalen.

Bestalde, Getxoko ondarea berreskuratzera, kontserbatzera eta balioa ematera bideratutako proiektuen helburu nagusia antzeppen-aretoa eta haren ingurune hurbila erabiltzea da, epe laburrean, biztanleek eta hainbat erakunde eta entitatek eskatzen duten jarduera soziokultural gero eta handiagoari harrera egiteko aretoaren erabateko antolamenduan, hau da, espazioaren erabilera integrala ahalbidetzeko. Gainera, etorkizunean hego-mendebaldeko galeria berreskuratzeko bidean aurrera egingo dugu. Beraz, antzeppen-aretoko estaldurak eta dekorazioak eta balkoi korritu handiaren lehengoratzeko proiektua eta eremu horretako hego-mendebaldeko lorategia drainatzeko eta urak biltzeko proposamena definitzeko behar diren azterketa hidrologikoak jasotzen dituzte.

Obren kasuan bezala, hemen islatutako zenbatekoak Eusko Jaurlaritzak horretarako argitaratzen dituen dirulaguntza ildoei eskatutako zenbatekoari – edo eskatu ahal izateko aurreikusitakoari – dagozkio, eta kopuru osoaren zati proportzionala da, eta %60koa edo %75ekoa da kasu bakoitzerako.

Horrekin guztiarekin, inbertsio horiek 316.493,34 eurokoak dira guztira.

INBERTSIOAK	Importe
Begoña lurmuturreko galerien egitura partziala sendotzeko eta egonkortzeko obra-lanak.	280.163,34 €
Getxoko ondarea berreskuratzeko, kontserbatzeko eta balioesteko proiektu teknikoak egitea.	36.330,00 €
Inbertsioen eranskina, guztira	316.493,34 €

GASTUEN AURREKONTUAREN LABURPENA

Gastuen koadroaren laburpena, lehen azaldutako partiden arabera, honako hau da:

FUNTZIONAMENDU-GASTUAK, GUZTIRA 667.983,16 €

FUNTS-ERAGIKETEN GASTUAK, GUZTIRA 316.493,34 €

AURREKONTU-GASTUAK, GUZTIRA 984.476,50 €

DIRU-SARRERAK

FUNTZIONAMENDUKO DIRU-SARRERAK

PATRONATUKIDEEN EKARPENA FUNDAZIOARI | 530.226,04 €

Getxoko Udalak Punta Begoña Fundazioari 530.226,04 euroko ekarpena egin dio, bere jarduera garatzeko.

DIRULAGUNTZAK | 379.908,46 €

EAEko kultura-ondarearen arloko programa zehatzak zuzenean edo zeharka kudeatzeko bazkide sortzaileek egiten dituzten ekarpenak sartzen dira hemen eta horiekin batera aurreikusitako dirulaguntza publiko eta pribatua.

Azken hauen artean, Eusko Jaurlaritzak 2024-2026 aldirako euskal kultura-ondarea hedatzeko eta balioesteko programaren esparruan emandako dirulaguntza, 103.202,42 euro 2025ko ekitaldirako. 2025-2027 aldirako Eusko Jaurlaritzaren laguntza-lerro berari 261.706,04 euro eskatuz aurreikusitakoaz gain.

Era berean, kontzeptu horretan sartzen dira Bizkaiko Foru Aldundiak eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuek Punta Begoña Galerien monumentua gizarteratzeko, musealizatzeko eta digitalizatzeko egin ditzaketan ekarpenak, 15.000,00 euroko.

LANKIDETZA HITZARMENAK ETA BABESLETZAK | 50.000,00 €

Partida honetan sartzen dira Punta Begoña Fundazioaren jardueraren babesak formalizatzeko erakunde pribatuekin lankidetza-hitzarmenak edo harremanak formalizatzearen ondorioz aurreikusitako diru-sarrerak. Zenbatekoa 50.000,00 eurokoa izango da 2025ko ekitaldirako.

ZERBITZUAK EMATEA | 14.520,00 €

Partida honetan sartzen dira, 2025ko ekitaldian, fundazioaren helburuak lortzen laguntzeko EAEko kultura-ondarearen eremuan beste erakunde edo pertsona fisiko edo juridiko batzuei zerbitzuak emateagatik lortutako diru-sarrerak, 14.520 euroko zenbatekoarekin.

BESTELAKO JARDUERA EKONOMIKOAK | 9.822,00 €

Hor sartzen dira fundazioaren helburuekin edo helburu osagarri edo osagarriekin lotutako beste jarduera ekonomiko batzuen garapenagatiko diru-sarrerak, horien artean, Punta Begoña Galerien sozializazioaren esparruan garatutako bisita edo tailerengatik sarrerak kobratzea, 9.822,00 euro.

DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LABURPENA

Diru-sarreraren koadroaren laburpena, lehen azaldutako partiden arabera, honako hau da:

AURREKONTU-SARRERAK, GUZTIRA984.476,50 €

AURREKONTUAREN EGOERA

Ondorioz, 984.476,50 euroko sarrerekin eta zenbateko bereko ustiapen-gastuekin, 2025 ekitaldirako aurreikusitako ustiapen-emitza baliogabea da.

2025RAKO AURREIKUSITAKO EMAITZEN KONTUA

Jarraian, 2025rako emaitzen kontuaren aurreikuspena aurkezten da.

2025ko EKITALDIRAKO AURREIKUSITAKO EMAITZEN KONTUA (eurotan adierazita)

	2025	2024
1 Negozio-zifraren zenbateko garbia	24.342	23.420
6 Langile-gastuak	-150.190	-150.705
7 Ustiapeneko beste gastu batzuk	-517.095	-444.786
8 Ibilgetuaren amortizazioa	0	0
9 Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelakoen egozpena	643.641	572.768
11 Ibilgetua besterentzeagatik hondamena eta emaitza	0	0
A) USTIAPENAREN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11)	698	698
12 Finantza-sarrerak	0	0
13 Finantza-gastuak	-698	-698
B) FINANTZA-EMAITZA (12+13+14+15+16)	-698	-698
C) ZERGEN AURREKO EMAITZAK (A+B)	0	0
17 Mozkinen gaineko zergak	0	0
D) EKITALDIKO EMAITZA (C+17)	0	0

2025RAKO AURREIKUSITAKO EGOERAREN BALANTZEA

Jarraian, 2025rako aurreikusitako egoeraren balantzea aurkezten da.

AKTIBO	2025	2024
A AKTIBO EZ-KORRENTEA	5.946.558	5.630.064
II. Ibilgetu ez-materiala	5.946.558	5.630.064
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	0	0
VI. Zerga geroratuen aktiboak	0	0

B ACTIBO ARRUNTA	116.975	46.975
III. Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	0	0
3. Beste zordun batzuk	0	0
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	116.975	46.975

AKTIBOIA GUZTIRA (A+B)	6.063.533	5.677.039
-------------------------------	------------------	------------------

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2025	2024
A ONDARE GARBIA	5.976.533	5.660.039
A-1 Funts propioak	29.975	29.975
I. Fundazioaren zuzkidura	30.000	30.000
II. Galdatu gabeko ordainketengatikoko sortzaileak	-17.662	-17.662
III. Erreserbak	0	0
IV. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-25	-25
VII. Ekitaldiaren emaitza	0	0
A-3 Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	5.946.558	5.630.064

B PASIBO EZ-ARRUNTA	0	0
II. Epe luzeko bestelako zorrak	0	0
IV. Zerga geroratuen pasiboak	0	0

C PASIBO ARRUNTA	87.000	17.000
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	87.000	17.000
1. Hornitzaileak	7.000	7.000
2. Bestelako hartzekodunak	80.000	10.000

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)	6.063.533	5.677.039
--	------------------	------------------



Fundación Punta Begoña Fundazioa
Foruak, 1
48992 | Getxo | Bizkaia



T. 944 660 068



info@puntabegonagetxo.eus
www.puntabegonagetxo.eus